



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Ugalketaren paradigma gainditzen

Gehiegitan, sexuari buruz jardutean, diziplina desberdinetatik egin ohi da, hala nola, erlijioetatik, medikuntzatik edo mugimendu sozialetatik. Gutxienetan egiten da, ordea, sexologiatik. Horrenbestez, asko dira sexuari buruz mintzatzen direnak sexuaz pentsatu gabe, sexuaz ikasi gabe, sexua ikertu gabe. Efigenio Amezua sexologo bikainak argi adierazten du: «Sexua sentitu eta sentsatu egin daiteke, baita pentsatu ere. Bada, azken hori ezinbestekoa da».

Ezagutzen ez dena asmatu egiten da eta hutsune teoriko eta enpirikoa normaltasunaren paradigmaterekin bete. Hiztegiak honela definitzen du «paradigma» terminoa: «Zalantzan jarri gabe onartzen den teoria edo teoria multzoa, arazoak konpontzeko oinarri eta eredia eskaintzen duena». Gizarte eta garai bakoitzean, sexualitatea ulertzeko modua printzipio ho-

rren mende egon da, eta, horregatik, gehiengoa norma bihurtu da (normala), eta sexualitatea normatibizatu, pobretu eta erabat murriztu da.

Sexualitatearen xedeak hiru dira eta, horien arabera, hiru ikuspuntu eraiki ditugu: ugalketarena, erlazio-nala eta aisialdikoa. Ugalketa ardatz duen ereduari, harreman erotikoko senar-emazteen artean soilik dira onargarri, betiere, seme-alabak izateko bada. Esparru horretan, harreman erotikoa anonimoak sarri izatea «kontrolaz kanpotzat», patologikotzat, hartzen da. Eredu erlazionalean, jarduera erotikoa intimitatea adierazi eta indartzeko era da, baina debekatuta dago harreman egonkor batean gertatu ezean. Azkenik, aisialdiko ereduari, harreman erotikoen xedea gozatzea baino ez da, nahiz eta tartean direnak euren artean ezezagunak izan.

Egun, gure jokabide erotikokoak erlazionalak eta aisialdikokoak direnez,

paradigma erlazionalean eta aisialdikokoaren artean gaudela uste dugu. Baina egiten duguna eta egiten dugun hori nondik pentsatzen eta interpretatzen dugun bi gauza oso desberdin dira. Hau da, jokabide erotikoa interpretatzeko erabiltzen dugun abiapuntua ugalketarena da eta ideologia matxistak erabat baldintzatzen du. Beraz, paradigma intelektual nagusia ugalketa ereduari eta sexualitate maskulinoari oinarritzen da.

Sexualitatearen oinarritzeko osagaiak (gorputza-plazera-desira) ugalketaren paradigmatere funtsatuz gero, gorputza genitalek murrizten da, plazera koito bihurtzen da eta desira erotikoa desira heterosexual bilakatzen da. Horrenbestez, sexu-harremanetan pentsatzen baldin badugu, ugalketa-adina eta koitoa egiten duten bikote heterosexualak baino ez ditugu gogoan izango; hori izango da «normala». Koitoa ez den beste edozein joko erotikok kategoria baxuagoa izango du, atariko hutsa izango da, edo, kasurik onenean, harreman osatu gabea. Txarrean, perbertsioa. Laburbilduz, genitalik gabeko sexu harremanak, baita heteronormatibitate eta androzentrismoak at dau-den sexualitateak eta sexuaren inguruko posizionamendu politikoak ere, tabu, perbertsio, gaixotasun, erradikal eta bazterreko kontsideratzen jarraitzen dugu oraindik ere.

Funtsean, sexu heziketak, sexualitatea ulertzeko eta interpretatzeko abanikoa zabalduz, ugalketaren paradigma gainditzen du. Sexualitatea eta gozamina gorputz guztian kokatuz, desira erotikoa anitza dela ulertuz, sexualitatea ongizatea lortzeko bitarteko dela barneratuz eta umeei, zaharrei eta desgaitasuna duten pertsonen ere badutela onartuz. •



Sexualitatea ugalketaren paradigmatere soilik oinarrituz gero, plazera koito bihurtzen da ezinbestean.